

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

## **UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAILEEN EGOERARI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko irailaren 18an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Udal Eraikinak Garbitzeko Zerbitzua osatzen duten langileek (184 emakume inguru) hilabeteak daramatzate beren lan-prekarietatea salatzen: ekipamendu eskasa, kontziliazioa oztopatzen duten ordutegiak, aldi baterako kontratazioak eragindako prekarietatea, urtean 5.200 eurotik gorako soldata-arrakala, lan-osasuneko arazoak eta abar.

Beren egoera behin baino gehiagotan trasladatu diete Udal Gobernuako ordezkariari eta oposizioko udal taldeei eta hainbat kontrol mozio onartu dira Udal Gobernuak esku har dezan. Hain zuzen ere, uztaileko udalbatzarrean honako puntu hauek jasotzen zituen kontrol mozioa onartu genuen:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari joan den astelehenean udal eraikinetako garbitzaileekin egindako bileran langileek helarazitako kezka konpontzeko neurriak har ditzala.*
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bitartekari lana egin dezala enpresarekin, langileen soldata-arrakala gainditzeko eta garbitzaile guztien desberdintasunik gabeko lan baldintza duinak bermatzeko.*
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2022an Udalbatzak onartutako kontrol mozioak eskatzen zuen genero txostena partekatu dezala udal talde guztiekin eta udal eraikinen garbiketa zerbitzuko ordezkari sindikalekin.*

Delegatuak zein langileen komiteak adierazi diguten bezala, lehenengo eta bigarren puntuak aurrera eramateko pauso batzuk egin dira, baina, oro har, garbitzaileen lan egoera ez da hobetu eta gaur egun zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin negoziazio prozesua blokeatuta dago. Hain zuzen ere, egoera berriro salatzeko, hainbat garbitzaile elkartu ziren udaletxeko atarian urriaren 4an eta idatziz erregistratu zuten Udal Gobernuari zuzendutako laguntza eskaera. Era berean, hainbat salaketa jarri dira epaitegian zein Lan Ikuskaritzan lan-baldintzan direla eta.

2022ko urritik pendiente dagoen zerbitzuaren genero ikuspegiaren txostenari dagokionez, urtea bukatzeko hilabete falta denean, ez da oraindik egin, nahiz eta 2023ko iraileko batzordeetan delegatuak adierazi zuen zerbitzuaren pleguei buruzko genero-txostena egiten ari zela, udal langile bat zegoela gaiaren gainean, uztaileko

## **EH Bildu talde politikoa**

### **Grupo político EH Bildu**

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -  
20003 Donostia

osoko bilkuran erabakitakoaren arabera, eta urte bukaera baino lehen entregatuko zela.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zerbitzuaren genero txostena egin eta aurkeztu dezala 2024ko otsaila baino lehen, plegu berrietan txostenaren ondorioak aplikatu ahal izateko.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal eraikinak garbitzeko zerbitzua lizitzatzeko plegu berrietan, langileen soldata-arrakala gainditzeko neurriak kontuan har ditzala.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, indarrean dagoen lizitzazioa amaitu baino lehen, pleguen betetze mailaren inguruko ebaluazioa egin dezala.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**